# Herrialde-txostena: Erresuma Batua

**basque trade & investment**

*2020ko abendua*

+ Erresuma Batuko eta Irlandako bulegoa
+ Adimen Lehiakorreko Unitatea

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

## EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK ..... 4
Gobernua ..... 4
Biztanleria ..... 4
Geografia ..... 4
Ekonomia ..... 4
Beste batzuk ..... 4
2. BEGIRADA ..... 5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA ..... 6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA ..... 7
4.1. Abagune ekonomikoa ..... 7
4.2. Balantza komertziala ..... 8
4.3. Atzerriko inbertsioa ..... 9
4.4. Enplegua ..... 11
4.5. Perspektiba ekonomikoak ..... 11
5. KANPO-MERKATARITZA ..... 13
6. ALDEBIKO HARREMANAK ..... 17
6.1. Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritza ..... 17
6.2. Euskadiren posizionamendua ..... 19
6.3. Aldebiko inbertsioak ..... 22
7. SEKTORE NAGUSIAK ..... 24
7.1. Ekarpena BPGari ..... 24
7.2. Negozio-aukerak ..... 26
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK ..... 28
8.1. Nazioarteko kidetasunak ..... 28
8.2. Merkataritza-akordioak ..... 28
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK ..... 29
9.1. Herrialde-arriskua ..... 29
10. ONDORIOA ..... 30
11. ERREFERENTZIAK ..... 31

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Hazkunde adierazleak ....8
2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2016-2019) ....9
3. taula: Atzerriko inbertsioaren adierazleak Erresuma Batuan (2017-2019)....9
4. taula: Lan-arloko adierazleak (2019) ....11
5. taula: Erresuma Batuaren bezero diren herrialde garrantzitsuenak (2019) ....13
6. taula: Erresuma Batuaren hornitzaile diren herrialde garrantzitsuenak (2019) ....13
7. taula: Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019) ....14
8. taula: Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako zerbitzu garrantzitsuenak (2019) ....14
9. taula: Erresuma Batuak Espainiara gehien esportatutako produktuak, muga-zerga kapituluka (2020ko urtarrila-uztaila) ....15
10. taula: Erresuma Batuak Espainiatik gehien inportatutako produktuak, muga-zerga kapituluka (2020ko urtarrila-uztaila) ....15
11. taula: Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritza (2014-2019)....17
12. taula: Euskadik Erresuma Batura esportatutako produktu garrantzitsuenak (2019) ....18
13 taula: Euskadik Erresuma Batutik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)....18
14. taula: Euskadiren pisua Espainiatik Erresuma Baturako esportazioetan (2016-2019)....18
15. taula: Espainia eta Euskaditik Erresuma Batura eginiko esportazioen rankinga produktuka (2015-2020)....19
16. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren rankinga hazkundearen arabera, 2002-2017 ....20
17. taula: Erresuma Batuko euskal ezarpenak gaur egun ....22
18. taula: Jarduera ekonomikoaren banaketa sektoreka (2019) ....24
19. taula: Erresuma Batuko BPGaren banaketa sektoreka (2018)....25
20. taula: Erresuma Batuarentzat potentzial inportatzailea duten sektore garrantzitsuenak....27
21. taula: Herrialde-arriskuaren balorazioa ....29

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Erresuma Batuaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (1980-2025)....12
2. grafikoa: Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritzaren bilakaera (2014-2019)....17
3. grafikoa: Inportazioen hazkundea (2012-2017) ....21

# 1. DATU OROKORRAK

## Gobernua

**Estatuaren izena:** Erresuma Batua
**Gobernu mota:** Monarkia parlamentario konstituzionala
**Estatu-burua:** Isabel II.a erregina
**Lehen ministroa:** Boris Johnson

## Biztanleria

**Biztanleria guztira** (2020): 67 milioi[1]
**Hazkunde naturala**(2018): % 0,6[2]
**Biztanleria urbanoa** (2019): % 83,7
**Hizkuntza ofiziala:** ingelesa. Horrez gain, Galesen galesa mintzatzen da.
**Negozioetarako hizkuntza:** ingelesa
**Hiriburua:** Londres
**Beste hiri batzuk:** Birmingham, Manchester, Leeds, Newcastle, Glasgow, Liverpool, Sheffield, Nottingham eta Bristol.
**Txanpona:** Libera (£). Kanbio-tasa: euro 1 = 0,9 £

## Geografia

**Klima:** klima ozeaniko epela, 9 eta 11°C bitarteko urteko batez besteko tenperaturarekin.
**Baliabide naturalak:** ikatza, petrolioa, gas naturala, larrua, zinka, urrea, eztainua, kareharria, gatza, buztina, klera, igeltsua, potasioa, harea, silizea, arbela, lur landagarria.

## Ekonomia

**BPGa** (2019, mila milioi euro): 2.523.313[3]
***Per capita* BPGa** (2019, euro): 37.760
**BPGaren hazkundea** (2020): % -9,8
**Urteko inflazioa** (2019): % 1,8
**Enplegua** (2020): 32,92 milioi
**Enplegu-tasa** (2020): % 64
**Langabezia-tasa** (2020): % 4,8
**Ondasun eta zerbitzuen esportazioak** (2019): 419.037,8 milioi €
**Ondasun eta zerbitzuen inportazioak** (2019): 616.090,9 milioi €
**Merkataritza** (2018, BPGaren %-a): % 40

## Beste batzuk

**I+G-ko gastua** (2019, BPGaren %-a): % 4,29
**Internet erabiltzaileak** (2017): % 87
**GGI** (2019): 0,922

*Iturriak: CIA, IMF, Datos Macro, The World Bank, DANE, WTO*

---

[1] Santander Trade (2020): https://datosmacro.expansion.com/paises/uk
2 Santander Trade (2020): https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/reino-unido/presentacion-general
3 Santander Trade (2020): ttps://datosmacro.expansion.com/paises/uk;

# 2. BEGIRADA

Puntu honetan azterlan bat baliatuko dugu, zeinetan aztertzen diren 31 zonaldetan banatutako 48 herrialdek Euskadi eta BasqueTrade-rentzat izan lezaketen interesa.

Azterlan horretan, Erresuma Batua 6. postuan kokatuko litzateke. Kokapen hori emateko, kontuan hartzen dira gehienbat merkatuaren tamaina, klusterren interesa, Basque Trade-ren programetara aurkeztutako ekintzak, Euskadiren esportazioak eta inbertsio-iturri izateko aukera. Erresuma Batuak erraztasun handiak ematen ditu negozioak egiteko, eta Euskadiren kuota komertziala nahiko altua da.

Erresuma Batua da euskal esportazio askoren jomuga. Bi herrialdeen arteko sinergia garrantzitsuenak automozioan eta sektore aeroespazialean gertatzen dira.

Erresuma Batua Brexit osteko trantsizio garaian aurkitzen da. Europar Batasunarekin izango duen harremana negoziatzen ari da, bloke bien jarrerak oraindik elkarrengandik urrun badaude ere. Horrek bere ondorioak ditu eta kaltetu egin ditzake Erresuma Baturantz eta Erresuma Batutik egiten diren esportazio eta inportazioak; beraz, negoziazio-prozesua funtsezkoa izango da etorkizunerako.

Txosten hau idazten ari garen unean Erresuma Batua –eta Europa osoa– COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomiko eta sanitarioan murgilduta dago, eta arlo ekonomikoan uste da % 9,8 inguru murriztuko dela 2020ko BPGa.

# 3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Erresuma Batua demokrazia parlamentarioan oinarritutako monarkia konstituzional bat da. Lau herrialde eratzailetan banatzen da: Ingalaterra, Eskozia, Gales eta Ipar Irlanda. Erresuma Batua estatu unitarioa da, botere zati bat Eskozia, Gales eta Ipar Irlandari itzuli diena.

Erregina da estatu-burua. Nagusiki paper zeremoniala du, baina bereak ditu oraindik hiru oinarrizko eskubide: kontsultatua izateko, aholkuak emateko eta ohartarazteko.

Parlamentuko behe ganberarako hauteskundeen ostean, erreginak Lehen Ministro izendatzen du gehiengoa lortzen duen alderdiko liderra, karguan egon dadin 5 urtez. Lehen ministroa da gobernu-burua, eta berea du botere exekutibo osoa, herrialdean legea aplikatzea eta eguneroko gaiak kudeatzea barne. Kabineteko kideak ere berak izendatzen ditu.

Erresuma Batuko legebiltzarrak bi ganbera ditu. Parlamentua Lorden Ganberak (goi ganberak) osatzen du, eta bere kideak erreginak izendatzen ditu bizi osorako, Lehen Ministroak berari proposatu ondoren (kide kopurua aldakorra da). Komunen Ganberak (behe ganberak), berriz, 650 eserleku ditu, eta bertako kideak sufragio unibertsalez aukeratzen dira 5 urterako. Gobernua da Parlamentuaren arduraduna eta bere menpe dago.

2019ko urriaren 17an, EBk eta Boris Johnson lehen ministroak gidatutako Britainia Handiko gobernuak akordio berri bat lortu zuten Brexitaren itun berrikusi baterako. Boris Johnson-ek irteerako akordiorako negoziatu dituen aldaketa gehienak Brexitaren ostean Irlandako mugak izango duen estatusari buruzkoak dira; alderdi biek saihestu nahi dute Brexitaren ostean “muga gogor” bat sortzea berriro Ipar Irlandaren eta Irlandako Errepublikaren artean. Ipar Irlandaren protokolo berriak ordezkatu egingo du Theresa May-ren akordioan zegoen “segurtasun sareko” plan eztabaidagarria. 2019ko urriaren 28an, Erresuma Batuaren luzapen eskaera berria onartu ondoren, EBk adostu zuen Brexita 2020ko urtarrilaren 31ra atzeratzea. Azkenean, Komunen Ganberak eta Lorden Ganberak onartu egin zuten irteera akordioari buruzko Brexit legea, gero erreginaren oniritzia hartu zuena. Europako Legebiltzarraren onarpenaren ostean, Erresuma Batua 2020ko urtarrilaren 31n irten zen ofizialki EBtik irteera akordio batekin, eta trantsizio aldi bat hasi zen, zeinetan Erresuma Batuak eta EBk merkataritza libreko akordio berri bat lortu beharko duten. Une honetan aurreikusten da trantsizio aldi hori 2020ko abenduaren 31n amaituko dela bestelako luzapenik gabe, atea zabalik utziz Brexita merkataritza libreko akordiorik gabe burutzeko.

# 4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

## 4.1. Abagune ekonomikoa

Britainia Handiko ekonomia, munduko seigarren handiena, abiadura galtzen joan da Brexitagatik 2016tik hona, eta 2019ko bigarren hiruhilekoan uzkurtu ere egin zen. Erresuma Batuko BPGa % 1,4 baino ez zen hazi 2019an, 2018ko % 1,3ko hazkundearen aldean (NDF). 2020ko apirilaren 14an eguneratutako NDFren aurreikuspenen arabera, aurreikusten da hazkundea % 6,5 txikiagoa izango dela 2020an COVID-19aren ondorioz, eta 2021ean % 4 haziko dela, baldin pandemiaren osteko susperraldiak laguntzen badu. Kalkulu horietan eragina izango du, baita ere, EBrekin merkataritza libreko akordio zabal bat lortzeak eta Brexitaren osteko trantsizio-epe bare bat izateak. EBko ekonomian eragin handia daukate Brexitaren inguruko negoziazioek ekarri dituzten ziurgabetasunek, eta merkataritza kostuak etorkizunean handiagoak izango ote diren beldurrak. Gainera, hazkunde potentziala txikiagoa da moteldu egin delako kapitalaren metaketa, gutxitu egin delako Europar Batasunetik datorren migrazio garbia eta produkzio iraunkorra apala delako. NDFren arabera, MMEren arau komertzialetara itzultzeak, modu ordenatuan egingo balitz ere, BPGaren % 5 eta % 8 bitarteko produkzio galerak eragingo lituzke epe luzera Erresuma Batuan, Brexitik gabeko egoera batekin alderatuta.

2018az geroztik, negozioetako inbertsio maila murriztu egin da, diru-sarrera errealen hazkunde eskasak eragina izan du kontsumoan, eta zor publikoa oso altua da oraindik (BPGaren % 85 ingurukoa). Halere, zergen kontsolidazioa jarraitua denez, defizit publikoa BPGaren % 2tik behera jaitsi zen lehen aldiz 15 urtean eta inflazioa ere murriztu egin da (% 1,8). Gobernuko agintariak Brexita prestatzen ari dira, itun horrek aldaketa gaitzak ekarriko dituelarik administrazioan eta arlo legegilean. Lehentasunetako bat izango da merkataritza libreko akordio bat lortzea EBrekin, eta nahiz eta analista askok uste duten ezarritako epea (2020aren amaiera) ez dela errealista, orduantxe amaituko dira negoziazioak. Une honetan martxan da produktibitatea bultzatzeko estrategia integral bat, kapital fisikoan eta giza kapitalean oinarritutako inbertsiotik abiatuta. Alderdi kontserbadorearen manifestuak garrantzi handia eman dio Brexitaren lorpenari (“*get Brexit done*”), baina ez du eman bere politika ekonomikoari buruzko xehetasun gehiegirik. Gobernuak konpromisoa hartu du inbertsio-gastua BPGaren % 3raino igotzeko eta aurrekontu-gastua handitzeko. Gainera, gobernuak adierazi du ez dituela handituko diru-sarreren eta BEZaren gaineko zergak, ez eta aseguru nazionalaren kostua. Uste guztien arabera, 2020ko otsailean iragarriko da aurrekontua. Erresuma Batuaren erronka nagusiak dira Brexitak eragindako kalteak mugatzea, eta inbertsioa eta produktibitatea sustatzea hazkundea bultzatzeko.

Nahiz eta hazkundea moderatua izan den, enplegu-indizea zifra historiko altuetara iritsi da. NDF-ren arabera, langabezia lan-indarraren % 3,8koa da; aurreikusten da zifra hori % 4,8ra igoko dela 2020an eta % 4,4ra jaitsiko dela 2021ean. Enplegua sortu bada ere, enplegu prekarioa izan da, soldatak izoztu egin dira eta lanaldi erdiko enpleguak ugaritu egin dira. Langabeziak eragin handia du, bereziki, gazteen artean: kalkulatzen da 24 urtetik beherako bost pertsonatik lau langabezian daudela. Erresuma Batuak zifra makroekonomiko nahiko onak dauzka, baina zifra horien atzean hainbat ahultasun eta desberdintasun egoera ezkutatzen dira. Hala, NDFk adierazi duen bezala, lehentasunezkoa da giza kapitala indartzea. Hazkunde jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortu nahi bada, gobernuak ahalegin berezia egin beharko du azpiegituretan inbertitzeko, etxebizitza-eskaintza bultzatzeko eta emakumeak lan munduan duen parte-hartzea emendatzeko.[4]

[4] Santander Trade (2020): https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/reino-unido/politica-y-economia?url_de_la_page=%2Fes%2Fportal%2Fanalizar-mercados%2Freino-unido%2Fpolitica-y-economia&&actualiser_id_banque=oui&id_banque=17&memoriser_choix=memoriser

1. taula: Hazkunde adierazleak[5] [6]

| HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 (e) | 2021 (e) |
|---|---|---|---|---|---|
| BPGa (mila milioi USD) | 2.640 | 2.829 | 2.744 | 2.000 | 2.000 |
| BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea) | % 1,8 | % 1,4 | % 1,2 | % -9,8 | % 5,9 |
| Per capita BPGa (USD) | 39.977 | 42.580 | 41.030 | 39.000 | 42.000 |
| Inflazio-tasa (%) | % 2,7 | % 2,5 | % 1,8 | % 2,4 | % 1,2 |

*Iturria:* NDF, Santander Trade, World Economic Outlook Database, 2020ko abendua

Britainia Handiko ekonomiak Bigarren Mundu Gerraz geroztik jasan duen atzeraldirik sakonenari aurre egin beharko dio aurten, COVID-19a dela medio. Pandemiak 40.000tik gora heriotza eragin zituen abuztu erdirako (mundu osoko zifren laurdena da hori milioi biztanleko heriotza kopuruari dagokionez) eta gobernuak itxialdia iragarri behar izan zuen, “jarduera ez-oinarrizkoak” geldiarazi zituelarik martxoaren 23tik ekainaren hasierara arte. Neurri horien ondorioz, BPGa % 2,2 murriztu zen lehen hiruhilekoan, eta % 20,4 bigarrenean, nahiz eta jarduera ekonomikoa berpizten hasi zen murrizketak malgutzen hasi zirenean eta, batik bat, ekainaren 15etik aurrera “enpresa ez-oinarrizkoak” berriz ireki ondoren.

Bidaiatzeko debekuen eta denden itxialdiaren ondorioz, etxeetako kontsumoa % 23 murriztu zen bigarren hiruhilekoan (lehenengoan % -3) epe laburreko lan-planak gorabehera, zeintzuek 2.500 liberarainoko soldaten % 80a bermatu baitzuten (besteren konturako langileen heren batek eskuratu zituzten laguntza horiek), eta baita ere norbere konturako langileentzako kalte-ordainak.

Osasun arloko testuinguru ziurgabe honetan, pentsatzekoa da enpresen inbertsioa astiro suspertuko dela, are gehiago kontuan hartzen bada Europar Batasunarekiko (EB) akordio komertzialari buruzko negoziazioak ziurgabetasunez beteta daudela eta negoziazio-epe hori abenduaren 31n amaitzen dela. Oraindik posible da negoziazioek porrot egitea eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aduana-eskubideak eta kontrolak jarri behar izatea bi blokeen artean (beste edozein hirugarren herrialderekin bezala).

Egoera hori kolpe latza litzateke EBrekiko harreman komertzialen mende dauden hainbat sektorerentzat, hala nola, automobilgintza, garraioa edo txikizkako merkataritzarentzat, eta lanak izango lituzkete suspertzeko. Merkataritzak beherakada izan du, munduko beste toki guztietan bezala: esportazioak % 23 murriztu ziren bigarren hiruhilekoan (2019 amaierarekin alderatuta), eta inportazioak, berriz, % 31.[7]

## 4.2. Balantza komertziala

Nazioarteko merkataritzari dagokionez, Erresuma Batua munduko herrialde garrantzitsuenetako bat da. Kanpo-merkataritzak BPGaren % 64,3 ordezkatu zuen 2019an. Merkatu-gaien munduko seigarren inportatzailea eta hamargarren esportatzailea da, eta zerbitzuen kasuan, bigarren esportatzailea eta bosgarren inportatzailea (MME, 2019). Hauek dira gehien inportatzen dituen produktuak: ibilgailuak eta garraiorako ekipamendua, erregaiak, urrea, botikak, gailu elektrikoak eta datuak digitalki prozesatzeko gailuak, material organikoak eta elikagaiak. Gehien esportatzen diren produktuak inportazioen antzekoak dira.

[5]NDF (2019): World Economic Outlook Database. Projected Real GDP. https://www.imf.org/en/Countries/GBR
[6]Santander Trade (2020): https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/reino-unido/politica-y-economia?url_de_la_page=%2Fes%2Fportal%2Fanalizar-mercados%2Freino-unido%2Fpolitica-y-economia&&actualiser_id_banque=oui&id_banque=17&memoriser_choix=memoriser
7 COFACE: Herrialde-arriskua. https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/United-Kingdom

Bestalde, hauek dira Erresuma Batuaren bazkide komertzial garrantzitsuenak: AEBak, Alemania, Herbehereak, Frantzia eta Txina. Britainia Handiaren inportazioak Alemaniatik, Txinatik, AEBetatik, Herbehereetatik eta Frantziatik datoz gehienbat.

Erresuma Batuak defizit komertzial estrukturala du, baina soberakin handia du zerbitzuen sektorean. Eskuartean ditugun datuen arabera, 2019an 695.798 milioi $ inportatu zituen ondasunetan, eta 469.684 milioi $ esportatu, 226.114 milioiko defizitarekin. Erresuma Batuak 279.184 milioi $ inportatu zituen zerbitzuetan, eta 411.794 milioi $ esportatu.

### 2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2016-2019)

| Kanpo-merkataritzaren adierazleak | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Ondasunen inportazioa (milioi USD) | 635.762 | 643.515 | 672.267 | 695.798 |
| Ondasunen esportazioa (milioi USD) | 409.397 | 441.106 | 486.439 | 469.684 |
| Zerbitzuen inportazioa (milioi USD) | 198.653 | 207.037 | 258.308 | 279.184 |
| Zerbitzuen esportazioa (milioi USD) | 327.176 | 353.077 | 405.547 | 411.794 |
| Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %) | 30,1 | 31,6 | 32,0 | 32,7 |
| Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %) | 28,4 | 30,4 | 30,6 | 31,5 |
| Balantza komertziala (milioi USD) | -181.160 | -175.088 | -185.784 | -165.955 |
| Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD) | -43.559 | -32.251 | -39.564 | -33.120 |
| Kanpo-merkataritza (BPGaren %) | 58,5 | 61,9 | 62,6 | 64,3 |

*Iturria:* Santander Trade, Merkataritzaren Munduko Erakundea eta Munduko Bankua, 2020ko martxoa

## 4.3. Atzerriko inbertsioa

Mundu osoko inbertsioei buruzko 2020ko CNUCYD-en txostenaren arabera, Erresuma Baturanzko AIZ fluxuek behera egin zuten bigarren urtez jarraian; 2019an 59 mila milioi USDekoak izan ziren, aldiz, 2018an 65 mila milioikoak, eta 2017an 101 mila milioikoak. 2019an AIZ erreserbak 2 bilioi USD ingurura iritsi ziren eta 2018an 1,43 bilioira. Erresuma Batua AIZ fluxuen munduko zortzigarren hartzailea izan da Estatu Batuak, Txina, Herbehereak, Hong Kong, Singapur, Alemania eta Australiaren atzetik (iaz baino postu bat beherago dago). Fluxuak oso urrun gelditu ziren 2016ko errekorretik (196.100 milioi USD). Brexitak kezka sortu du hainbat inbertitzaileren artean, Europarekiko kostu komertzialak handituko direlako eta liberaren egoera oso ezegonkorra delako. AIZ erreserbei dagokienez, 2018an, hauek izan ziren Erresuma Batuaren inbertsio-bazkide garrantzitsuenak: Estatu Batuak, Britainia Handiko *offshore* uharteak (Kanaleko uharteak eta Man uhartea), Herbehereak, Luxenburgo, Belgika, Japonia eta Alemania (ONS, 2019). AIZ fluxu gehienak sektore hauetara zuzenduta daude: energia eta hondakinak, merkataritza eta konponketa, metalezko produktuak eta makineria, finantza eta administrazio zerbitzuak, eta zerbitzuekin lotutako euskarri-jarduerak.[8]

### 3. taula: Atzerriko inbertsioaren adierazleak Erresuma Batuan (2017-2019)

| ATZERRIKO INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|
| AIZ (milioi USD) | 101.241 | 65.300 | 59.137 |
| AIZren stock-a (milioi USD) | 1.805.818 | 1.930.484 | 2.075.271 |
| *Greenfield* inbertsio kopurua | 1.329 | 1.550 | 1.537 |
| *Greenfield* inbertsioen balioa | 2,8 | n/a | n/a |

*Iturria:* UNCTAD, eskuragarri dauden azken datuak

[8] Santander Trade (2020): Foreign Direct Investment. https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/reino-unido/inversion-extranjera#:~:text=obtener%20informaci%C3%B3n%20complementaria-,Las%20IED%20en%20cifras,mil%20millones%20USD%20en%202017.

Brexita gorabehera, Britainia Handiko ekonomiak sendo jarraitzen du: Londres Europako finantzen hiriburua da, bertan daudelarik Fortune 500 rankingeko enpresen % 60ren bulego zentralak. Britainia Handiak txanpon indartsua du, nahiz eta azkenaldian balioa galdu duen, eta Europako merkatu garrantzitsuenetako bat da. Erresuma Batua zortzigarrena da (190 ekonomiaren artean) Munduko Bankuaren Doing Business 2020 sailkapenean (iaz baino postu bat gorago dago).

Hauxe da Britainia Handiko ekonomiaren indargune garrantzitsuenetako bat AIZ erakartzeko: Europako ekonomia liberalenetako bat dauka eta bere negozio-ingurunea oso aproposa da AIZrako. Erresuma Batuan batez beste 13 egun behar dira negozio bat hasteko, Europan, berriz, 32. Europako lehen herrialdea da eta munduko seigarrena adierazle horretan. Londresek indar-gune asko ditu: mundu mailako liderra da finantza sektorean, eta bere banka sektorea osasuntsua eta sendoa da.

Esportazioak estrukturalki lehiakorrak dira eta dibertsifikatuta daude, Erresuma Batuak munduko lege-esparru malguenetako bat du, eta langabezia-tasa baxuenetakoa mendebaldeko ekonomien artean.

Hauek dira Erresuma Batuaren ahulune garrantzitsuenak:

- Zerbitzuen sektoreak BPGari egiten dion ekarpena gehiegizkoa da.
- Ez da inbertitzen azpiegituretan.
- Atzerriko enpresa askok herrialdean duten presentziagatiko lehia-maila handiak eragina du industria sektorean.
- Produktibitatearen hazkundea oso baxua da.
- Defizit komertziala oso handia da.
- *Per capita* BPGa estankatuta dago duela zenbait urtetatik.
- Zaila da jakitea nolakoak diren Britainia Handiko ekonomiaren perspektibak, izan ere, gobernuak eta EBk Brexit ondorengo trantsizio aldian (2020ko abenduaren 31n amaituko da) negoziatuko duten akordioaren menpe daude.

Gaur egungo gobernuaren -eta bere aurrekoen- politika ekonomikoek ikuspegi liberala dute eta helburutzat dute malgutasunez jokatzea eta AIZrentzako ingurune erakargarri bat sortzea. Salbuespen gutxi batzuk kenduta, Erresuma Batuak ez du bereizketarik egiten enpresa nazionalen eta atzerritarren artean, ez enpresa pribatuak sortzeko unean eta ezta ere euren funtzionamenduan. Filial britainiarrak ezarri dituzten atzerriko enpresei ez zaie eskatu nazionalitatearekin lotutako eskakizun berezirik zuzendaritza-karguei edo akziodunei dagokienez, baina ezinbestekotzat jotzen da Erresuma Batuan erregistratutako edozein konpainiatako gutxienez zuzendaritza-kargu batek Erresuma Batuan izatea ohiko bizilekua.

Britainia Handiko Industria eta Merkataritza Ministerioko Inbertsio Departamentuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu atzerriko konpainiei herrialdean ezartzeko laguntzei buruzko informazioa emateko. Enpresentzako guneak ere sortu dira garapen industriala eta komertziala sustatzeko. Gune horietan ezartzen diren enpresek zerga salbuespenak eskuratu ditzakete.

## 4.4. Enplegua

Erresuma Batuko lan-merkatuak oso langabezia-tasa txikia du.

Hona hemen Erresuma Batuko lan-merkatuaren datu garrantzitsuenak:

**4. taula: Lan-arloko adierazleak (2019)**

| LAN-ARLOKO ADIERAZLEAK | 2019 |
|---|---|
| Enplegua guztira (%) | 32,7 |
| ENPLEGUA SEKTOREKA | |
| Lehen sektorea (%) | % 1 |
| Industria sektorea (%) | % 18 |
| Zerbitzuen sektorea (%) | % 81 |
| Langabezia-tasa (%) | 4,8 |

*Iturria:* Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa, 2020ko abendua

Erresuma Batuko 5 langiletik 4k zerbitzuen sektorean egiten dute lan; batez bestekoa baino askoz gehiago da hori, eta Londres hiriak Erresuma Batuko ekonomian duen garrantziaren ondorio da. Londresko biztanle eta turista kopuruaren ondorioz, herrialdearentzat zerbitzuena da sektore garrantzitsuena.

Sektore industrialak oraindik ere badu bere garrantzia; aipagarria da inportazioen zati handi bat industriara bideratzen dela, baina sektore horrek Britainia Handiko 5 langiletik bat baino ez du enplegatzen.

Britainia Handiko lan merkatua zifra historikoetan dago jende aktiboaren langabezia-tasari dagokionez, baina kontratu prekariodun lanpostu kopurua ere asko handitu da azken urteotan, beraz, langile guztien lan-baldintzak ez dira optimoak.

## 4.5. Perspektiba ekonomikoak

Pandemiak aldatu egin ditu Britainia Handiko gobernuaren, NDF-ren eta beste erakunde batzuen hasierako aurreikuspenak. 2020ko lehen hiruhilekoan Covid-19a agertu zenetik, Britainia Handiko BPGa asko murriztu da, 2020ko azaroan urte arteko % -9,8 hazkunde metatura iristeraino.[9] Pandemiak ondorio larriak izan ditu Britainia Handiko biztanleria aktiboaren % 81 enplegatzen duen zerbitzuen sektorean, batik bat Londres hirian, turismoak erregistro negatibo historikoak erdietsi baititu Covid-19agatik ezarritako mugimendu-murrizketen ondorioz.

Erresuma Batuko bilakaera-aurreikuspenek zioten BPGak eta prezioek hazkunde oso moderatua izango zutela aurreko urtearekin alderatuta. NDF-ren arabera, Covid-19aren krisiagatiko atzeraldi historikoaren ostean, BPGak hazkunde moderatua izango du datozen urteetan, eta batez besteko inflazioa % 0,8 inguruan kokatuko da.

Inflazio-tasari dagokionez, 2020rako pronostikoa % 2,4koa zen pandemia aurretik, baina orain aurreikusten da % 1,2ra murriztuko dela 2021ean.[10]

9 IMF (2020): Erresuma Batuaren azken proiekzioak. https://www.imf.org/en/Countries/GBR
10 Santander Trade (2020): Abagune ekonomikoa. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/reino-unido/politica-y-economia?url_de_la_page=%2Fes%2Fportal%2Fanalizar-mercados%2Freino-unido%2Fpolitica-y-economia&&actualiser_id_banque=oui&id_banque=17&memoriser_choix=memoriser

Hona hemen azken urteetako batez besteko BPGaren eta inflazioaren bilakaeraren grafikoa eta 2025era arteko aurreikuspena.

### 1. grafikoa: Erresuma Batuaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (1980-2025)




*Iturria:* IMF / 2020ko abendua

# 5. KANPO-MERKATARITZA

COMTRADE-k dioenez, hauek dira Erresuma Batuaren bezero nagusiak, euren garrantziaren arabera: Estatu Batuak, Alemania, Herbehereak, Frantzia eta Txina. Gehien esportatzen dituen produktuak dira automobilak eta beren osagaiak, urrea, petrolio-olio gordinak, turbo-erreaktoreak eta gas turbinak, nahastutako produktuz eginiko botikak eta hegazkinen zatiak eta abiaziorako osagaiak. Zerbitzuei dagokienez, zerbitzu-mota hauek esportatzen ditu: enpresentzako zerbitzuak (kontabilitatea, kudeaketa, zergak, lege arloko zerbitzuak, e.a.), finantza zerbitzuak, bidaiak, garraioa eta informatika eta informazio zerbitzuak.

Bestalde, Alemania, Txina, Estatu Batuak, Herbehereak eta Frantzia dira bere hornitzaile garrantzitsuenak (hurrenkera horretan). Hona hemen gehien inportatzen dituen produktuak: automobilak eta beren osagaiak, petrolio-olio gordinak, urrea, petrolio-olioak, turbo-erreaktoreak eta gas turbinak eta, azkenik, irrati-telefoniako gailu emisoreak. Zerbitzuei dagokienez, inportatzen ditu bidaiak, enpresentzako zerbitzuak (kontabilitatea, kudeaketa, zergak, lege arloko zerbitzuak, e.a.), garraioa, informatika eta informazio eta finantza zerbitzuak.

Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetera doan honetan, eta Brexitaren negoziazioek sortu duten ziurgabetasunaren aurrean, Britainia Handiak berriz negoziatu beharko ditu bere akordio komertzialak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hauexek dira Erresuma Batuko kanpo-merkataritzaren jomuga eta jatorri herrialdeak.

### 5. taula: Erresuma Batuaren bezero diren herrialde garrantzitsuenak (2019)

| BEZERO GARRANTZITSUENAK | 2019 |
|---|---|
| | % 100 |
| ESTATU BATUAK | % 15,7 |
| ALEMANIA | % 9,9 |
| FRANTZIA | % 6,7 |
| HERBEHEREAK | % 6,5 |
| TXINA | % 6,4 |
| IRLANDA | % 5,9 |
| BELGIKA | % 3,5 |
| SUITZA | % 3,3 |
| ESPAINIA | % 2,9 |
| ITALIA | % 2,7 |

*Iturria:* COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

COMTRADEren azken datuen arabera, 2019an Espainia 9. postuan kokatu da Erresuma Batuaren esportazioak jasotzen dituzten herrialdeen munduko rankingean, % 2,9ko kuotarekin.

### 6. taula: Erresuma Batuaren hornitzaile diren herrialde garrantzitsuenak (2019)

| BEZERO GARRANTZITSUENAK | 2019 |
|---|---|
| | % 100 |
| ALEMANIA | % 12,4 |
| ESTATU BATUAK | % 9,7 |
| TXINA | % 9,5 |
| HERBEHEREAK | % 7,8 |
| FRANTZIA | % 5,6 |

| BEZERO GARRANTZITSUENAK | 2019 |
|---|---|
| BELGIKA | % 4,7 |
| ITALIA | % 3,8 |
| SUITZA | % 3,4 |
| ESPAINIA | % 3,1 |
| NORVEGIA | % 2,9 |

*Iturria:* COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

COMTRADEren azken datuen arabera, 2019an Espainia 9. postuan kokatu da Erresuma Batuaren hornitzaile diren herrialdeen munduko rankingean, % 3,1eko kuotarekin.

Hauek dira Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako **produktu** garrantzitsuenak (2019):

### 7. taula: Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)

| PPRODUKTUA | % | PPRODUKTUA | % |
|---|---|---|---|
| ESPORTATUTAKOA GUZTIRA | % 100 | INPORTATUTAKOA GUZTIRA | % 100 |
| Automobilak eta gainerako ibilgailuak | % 8,2 | Urrea | % 10,2 |
| Turbo-erreaktoreak, turbo-propultsatzaileak eta gainerako turbinak | % 5,6 | Automobilak eta gainerako ibilgailuak | % 6,3 |
| Petrolio- edo mineral-olio gordinak | % 5,1 | Petrolio- edo mineral-olio gordinak | % 3,5 |
| Urrea | % 5,0 | Turbo-erreaktoreak, turbo-propultsatzaileak eta gainerako turbinak | % 3,0 |
| Produktuak nahastuz eginiko botikak | % 3,9 | Telefoniako gailu elektrikoak | % 2,9 |
| Hegazkin edo ibilgailu espazialen zatiak | % 3,4 | Petrolio- edo mineral-olioak | % 2,9 |
| Petrolio- edo mineral-olioak | % 2,5 | Traktoreen eta bestelako ibilgailuen zatiak eta osagarriak | % 2,3 |
| Margoak eta margolanak | % 1,9 | Tratamendurako makina automatikoak | % 2,1 |
| Desnaturalizatu gabeko alkohol etilikoa | % 1,7 | Produktuak nahastuz eginiko botikak | % 2,1 |
| Erabiltzeko prestatutako gizaki eta animalien odola | % 1,6 | Merkatu-gaiak garraiatzeko automobilak | % 1,3 |

*Iturria:* Santander Trade

Hauek dira Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako **zerbitzu** garrantzitsuenak (2019):

### 8. taula: Erresuma Batuak esportatu eta inportatutako zerbitzu garrantzitsuenak (2019)

| PPRODUKTUA | % | PPRODUKTUA | % |
|---|---|---|---|
| ESPORTATUTAKOA GUZTIRA | % 100 | INPORTATUTAKOA GUZTIRA | % 100 |
| Enpresentzako beste zerbitzu batzuk | % 27,36 | Bidaiak | % 31,67 |
| Finantza zerbitzuak | % 25,42 | Enpresentzako beste zerbitzu batzuk | % 28,58 |
| Bidaiak | % 12,74 | Garraioa | % 14,57 |
| Garraioa | % 10,75 | Informatika eta informazio zerbitzuak | % 7,08 |
| Informatika eta informazio zerbitzuak | % 7,88 | Finantza zerbitzuak | % 6,99 |
| Aseguru zerbitzuak | % 7,30 | Erregaliak eta lizentzia-eskubideak | % 5,84 |
| Erregaliak eta lizentzia-eskubideak | % 5,24 | Kultur eta aisialdi zerbitzuak | % 2,34 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Kultur eta aisialdi zerbitzuak | % 1,5 | Eraikuntza eta ingeniaritza zibila | % 0,71 |
| Eraikuntza eta ingeniaritza zibila | % 0,74 | Aseguru zerbitzuak | % 0,13 |

*Iturria: Santander Trade*

Segidan, Erresuma Batuak Espainiara gehien esportatzen dituen produktuak (2020ko urtarrila-uztaila).

### 9. taula: Erresuma Batuak Espainiara gehien esportatutako produktuak, muga-zerga kapituluka (2020ko urtarrila-uztaila)

| PPRODUKTUA | MILIOI EURO | % |
|---|---|---|
| ESPORTATUTAKOA GUZTIRA | 5.219.738,44 | 100 |
| 84 MAKINA ETA GAILU MEKANIKOAK | 626.746,08 | 12,0 |
| 87 AUTOMOBILAK; TRAKTOREAK | 595.058,68 | 11,4 |
| 27 ERREGAIAK, OLIO MINERALAK | 493.930,82 | 9,5 |
| 30 PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK | 417.529,83 | 8,0 |
| 85 GAILU ETA MATERIAL ELEKTRIKOAK | 358.420,89 | 6,9 |
| 72 BURDINURTUA, BURDINA ETA ALTZAIRUA | 196.312,09 | 3,8 |
| 90 OPTIKAKO, NEURKETAKO ETA MEDIKUNTZAKO GAILUAK | 188.202,42 | 3,6 |
| 28 PRODUKTU KIMIKO INORGANIKOAK | 182.457,02 | 3,5 |
| 39 MATERIAL PLASTIKOAK; BEREN MANUFAKTURAK | 180.539,34 | 3,5 |
| 71 HARRIBITXI ETA METAL PREZIATUAK; BITXIGINTZA | 158.374,81 | 3,0 |
| 38 BESTE PRODUKTU KIMIKO BATZUK | 137.500,98 | 2,6 |
| 29 PRODUKTU KIMIKO ORGANIKOAK | 130.286,48 | 2,5 |
| 76 ALUMINIOA ETA BERE MANUFAKTURAK | 126.360,95 | 2,4 |
| 33 OLIO ESENTZIALAK; LURRINGINTZA | 97.810,01 | 1,9 |
| 22 MOTA GUZTIETAKO EDARIAK (ZUKUAK IZAN EZIK) | 91.642,19 | 1,8 |

*Iturria:* COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

Ikusten da Erresuma Batuak Espainiara gehien esportatzen duena makina eta gailu elektrikoak direla, multzo horrek Espainiarako esportazio guztien % 12 biltzen duelarik, eta ondoren automobilak datoz, % 11,4ko kuotarekin. Segidan, Erresuma Batuak Espainiatik gehien inportatzen dituen produktuak (2020ko urtarrila-uztaila).

### 10. taula: Erresuma Batuak Espainiatik gehien inportatutako produktuak, muga-zerga kapituluka (2020ko urtarrila-uztaila)

| PPRODUKTUA | MILIOI EURO | % |
|---|---|---|
| INPORTATUTAKOA GUZTIRA | 9.395.803,87 | 100 |
| 87 AUTOMOBILAK; TRAKTOREAK | 2.222.275,59 | 23,7 |
| 08 KONTSERBATU GABEKO FRUTAK/FRUITUAK | 693.159,20 | 7,4 |
| 07 KONTSERBATU GABEKO LEKALEAK, BARAZKIAK | 656.585,91 | 7,0 |
| 71 HARRIBITXI ETA METAL PREZIATUAK; BITXIGINTZA | 508.210,82 | 5,4 |
| 84 MAKINA ETA GAILU MEKANIKOAK | 451.439,45 | 4,8 |
| 85 GAILU ETA MATERIAL ELEKTRIKOAK | 425.817,12 | 4,5 |
| 30 PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK | 300.182,46 | 3,2 |
| 22 MOTA GUZTIETAKO EDARIAK (ZUKUAK IZAN EZIK) | 257.628,48 | 2,7 |
| 39 MATERIAL PLASTIKOAK; BEREN MANUFAKTURAK | 241.233,09 | 2,6 |
| 27 ERREGAIAK, OLIO MINERALAK | 186.438,74 | 2,0 |
| 62 PUNTUZKOAK EZ DIREN ARROPAK | 182.808,74 | 1,9 |
| 20 BARAZKI EDO FRUTA KONTSERBAK; ZUKUAK | 172.499,19 | 1,8 |
| 72 BURDINURTUA, BURDINA ETA ALTZAIRUA | 159.467,42 | 1,7 |
| 73 GALDARAGINTZAKO MANUFAKTURAK, BURDINA/ALTZAIRUA | 146.156,71 | 1,6 |
| 33 OLIO ESENTZIALAK; LURRINGINTZA | 133.032,90 | 1,4 |

*Iturria:* COMTRADE, eskuragarri dauden azken datuak

Erresuma Batuak Espainiatik inportatzen dituen produktuen artean bada bat besteen gainetik nabarmentzen dena, alegia, automobilak, inportazio guztien % 23,7ko portzentajearekin; jarraian datoz frutak eta fruituak, % 7,4rekin. Hori adierazgarria izan liteke euskal konpainiek indartu beharko lituzketen sektoreak zein diren jakiteko.

# 6.ALDEBIKO HARREMANAK

## 6.1. Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritza

2019an, Erresuma Batua 3. postuan zegoen Euskadiko esportazioen rankingean, 2,324.5 milioiko esportazioekin.

**11. taula: Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritza (2014-2019)**

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 (p) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Esportazioak (mila euro) | 1.339.361 | 1.431.022 | 1.296.686 | 1.511.955 | 1.731.786 | 2.324.515 |
| Inportazioak (mila euro) | 1.463.595 | 1.684.918 | 814.135 | 1.325.744 | 755.558 | 633.732 |
| Balantza komertziala (mila euro) | -124.234 | -253.896 | 482.551 | 186.211 | 976.228 | 1.690.783 |

*Iturria: EUSTAT*

Euskaditik Erresuma Baturako esportazioek apur bat gora egin dute 2018ra arte. 2019an hazkunde handi bat nabaritu zen, Brexitak eta horrek ekar litzakeen ondorioek eraginda (esaterako, tokiko txanponaren balio galera). Ziurgabetasuna izan da nagusi 2020an, oraindik ezin baita jakin Erresuma Batuak eta Europar Batasunak akordio komertzial bat lortuko duten ala ez. Halere, esportazioei dagokienez, uste da urte hasieran aurreikusitako hazkundea ez dela beteko Covid-19aren krisiagatik.

Erresuma Batuarekiko balantza komertziala ez da beti izan positiboa, baina azken urteetako joera positiboa izan da Euskadirentzat.

**2. grafikoa: Euskadiren eta Erresuma Batuaren arteko merkataritzaren bilakaera (2014-2019)**




*Iturria: EUSTAT*

Covid-19aren ondoren, eta EUSTATek zabaldutako azken prentsa-oharraren arabera, 2020ko ekainean Euskadiren guztizko esportazioak % 53,2 murriztu ziren eta inportazioak % 43,2, aurreko urtearekin alderatuta. Erresuma Baturako esportazioak % 6,7 izan ziren, Alemania (% 16,2), Frantzia (% 15,6) eta Estatu Batuen (% 6,8) atzetik, lau herrialde horien artean Euskadiren esportazioen % 45,3 ordezkatzen dutelarik. [11]

11 EUSTAT: Prentsa-oharra: “Euskal Autonomia Erkidegoaren ondasun-esportazioak % 53,2 murriztu ziren 2020ko apirilean, eta inportazioak % 43,2”. https://www.eustat.eus/elementos/ele0017400/las-exportaciones-de-bienes-de-la-ca/not0017404_c.html

Hauek dira Euskadiren eta Erresuma Batuaren artean esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak.

### 12. taula: Euskadik Erresuma Batura esportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)

| PPRODUKTUA | 2019 | % |
|---|---|---|
